

2018KO PISA TXOSTENAK EKITATEAZ DIOENAZ JAKIN BEHAR DUZUN GUZTIA

Hezkuntza-ekitatea Espainian eta
autonomia-erkidegoetan, 2018ko PISA
txostenean

Euskadiko eranskina

/ 2019ko abendua





Save the Children Euskadiko zuzendaria: Charo Arranz

Egilea: Álvaro Ferrer

Knowledge Sharing Network (KSNET) sareko talde batek Lucas Gortázarren gidaritzapean garatutako datu-ustiapenetik abiatuta egin da ikerketa hau.

ksnet / knowledge
sharing
network

ZER DIO 2018KO PISA AZTERKETAK EUSKADIKO HEZKUNTZA-EKITATEAZ?

- **Eskolako segregazio sozioekonomikoak** handitzen jarraitu du Euskadin (+% 4), 2012tik gertatu denaren ildotik; aldiz, estatuan murriztu egin da. Estatuko bigarren tasa altuena da.
- **Ikasturtea errepikatzea** bidegabea da sozialki Euskadin: errendimendu bera oinarri hartuta, errepikatzen duten ikasleen artean, bost aldiz gehiago dira pobreak baliabide gehiagokoak baino; arlo horretan, okerrera egin da 2015etik. Estatuan, proportzioa laukoa da.
- Matematikan, **jatorriz etorkinak diren ikasleen** eta hemengo ikasleen arteko aldeak gora egin du 2015etik: Espainiako altuena da, eta hirugarrena da OCDEn.
- Matematikan, hobera egin da Euskadin, **genero-arrakalari** dagokionez, eta alderantzikatu egin da: Espainiako autonomia-erkidego eta OCDEko herrialde gehienetan ez bezala, nesken errendimendua mutilena baino hobea da.
- Ikasleen ikaskuntzari begira, nahiko bidezkoa da Euskadi, baina **bidegabea** da ikasleen **aurrerabideari** (ikasturtea errepikatzea) erreparatuta. Eta jakitea nahiz ikasturtea gainditzea eta aski titulazio lortzea erabakigarriak dira gero izango dituzten lan-aukerei eta aukera ekonomiko eta sozialei begira.

	Ekitatea matematikako errendimenduan				Ekitatea ikasturtea errepikatzeari begira			Eskola-segregazioa	
	Puntuazioetako aldakuntza ISEK puntuarekiko	Aldakuntzaren % ISEK bidez azaldua	Puntuazioetako aldea jatorri nazionalarekiko	Puntuazioetako aldea generoarekiko	Errepikatzaileen Odds ratioak, ISEK	Errepikatzaileen Odds ratioak jatorri nazionalarekiko	Errepikatzaileen Odds ratioak generoarekiko	Gorard sozio-ekonomikoa ISEK	Gorard etorkinak
Espainia (batez beste)	-	+	+	+	+	+	+	+	+
Euskadi	-	-	-	+	-	+	+	-	+

	OCDEko batezbestekoa baino ekitatiboagoa	+	Hobera egin da 2015eko PISArekiko
	OCDEko batezbestekoaren parean	=	2015eko PISAren parean
	OCDEko batezbestekoaren azpitik ekitatean	-	Okerrera egin da 2015eko PISArekiko



ZER DA PISA?

Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programa (*Programme for International Student Assessment*) Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (OCDE) egiten duen proba estandarizatu bat da, hiru urtean behin mundu osoko herrialdeetan 15 urteko ikasleek irakurketan, matematikan eta zientzietan dituzten gaitasun edo konpetentziak aztertzen dituen a –barneratutako ezaguera eta trebetasunak erabiltzeko gaitasunak, zehazki–.

Horrez gain, ikasleen, horien familien eta ikastetxeen ezaugarriei buruzko datuak ere biltzen ditu PISAk, eta, ildo horretatik, hezkuntza-arrakastarako faktoreak eta dimentsioak aztertzeko bidea ere ematen du.

HEZKUNTZA-EKITATEA

Ikasle guztiei aukera-berdintasuna eskaintzeko hezkuntza-sistemak duen gaitasunari egiten dio erreferentzia **hezkuntza-ekitateak**. Ikasleen hezkuntza-arrakasta jatorri sozialak zer neurritan baldintzatzen duen deskribatzen du. Haurren hezkuntza-eskubidearen parte da ekitatea, eta 2030ko Agendako helburu ere bai.



GARAPEN IRAUNKORRERAKO 4. HELBURUA:

Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

PISA txostenak –eta haren inguruko eztabaidek– ikaskuntzetan jartzen du arreta, **ikasleek barneratzen dituzten gaitasunetan**. Eta erreferente gisa soilik konpetentziak hartzen badira, Espainiaren jokabidea nahiko bidezkoa da, baita OCDEko batezbestekoa baino hobea ere. Dena den, hezkuntza-sistemaren ekitateari dagokion dimentsio bat baino ez da hori, ez da ikuspegi osoa.

Barneratutako ikaskuntza ez da pertsonaren bizi-aukerak eta aukera sozialak baldintzatzen dituen hezkuntza-emaizta bakarra. Hezkuntza-ibilbideetan dago Espainian bidegabekeriaren arazoa: ikasleek, beren ezaugarrien arabera, **hezkuntza-mailetan aurrera egitea eta ikasketak amaitzea lortuko dute**, edo ez. Espainiaren kasuan, **hezkuntzako lorpenak**, hau da, lortutako titulazioak, konpetentziek adinako eragina du gazteek etorkizunean izango dituzten lan- eta ekonomia-aukeretan. Eta jatorri sozialak pisu handia du eskola-porrotean edo eskola uztean, nahiz eta bi adierazle horiek ez islatu PISA txostenean –15 urtekoei dagozkien neurketak–.

***Hezkuntza-ekitatea ezin da aztertu konpetentzietan soilik.
Ikasturtean aurrera egitea eta hezkuntza-lorpena ere garrantzia duten dimentsioak dira.***

Hezkuntza-sistemaren barnean, **aurrerabidearen** adierazle oinarritzko bat **ikasturtea errepikatzeari** dagokiona da, eta adierazle hori neurtzen du PISA azterketak. Errepikatzailen gaia garrantzi handikoa da Espainiaren kasuan, neurri horretara gehien jotzen duten herrialdeetako bat baita; izan ere, errepikatzea lotuta dago zuzenean DBHn titulurik ez eskuratzeko eta hezkuntza-sistema garaia baino lehen uzteko arriskuarekin.

Jatorri sozialaren eraginak zerikusia du ikasleek eskolatzerakoan dituzten baldintzekin eta baliabideekin. Alderdi garrantzitsua da, arlo horretan, **eskola-segregazioa**. Babesgabetasun handienez dauden ikasleak eskola beretan bilduz, ezin dira eskaini haien hezkuntza-beharrei erantzuteko baldintza egokiak, eta arrakasta lortzeko aukerak murriztea dakar horrek.


aukerak murriztea dakar horrek.

Ikasleen hezkuntza-aukeretan eta emaitzetan eragin dezaketen jatorrizko ezaugarriak, PISA azterketaren bidez landu daitezkeenak, ikasle horien familiaren **maila sozioekonomikoa**, **jatorria** (migrazioa) eta **generoa** dira. PISA txostenak, maila sozioekonomikoa aztertzeko, **indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK)** erabiltzen du, eta familiari buruzko zenbait aldagai konbinatuz kalkulatzeko da indize hori: gurasoen hezkuntza-maila eta lanbidea,



Save the Children

ondasun materialak etxean, eta liburu kopurua, edota etxeko beste hezkuntza-baliabide batzuk. **Jatorriz etorkinak direnak** aztertzeke, “lehen belaunaldia” (herrialdetik kanpo jaiotakoak) nahiz “bigarren belaunaldia” (herrialdean jaiotakoak baino guraso etorkinak) hartzen dira kontuan.



Grisez, PISA azterketan ageri ez diren adierazleak

EKITATEA MATEMATIKAKO ERRENDIMENDUAN

Ekitatearen dimentsio garrantzitsuetako bat ikaskuntza dela esan dugu aurrez, eta desorekaren hiru faktoreetako bat familiaren baliabide-maila dela. Hortaz, PISA erabilita, bi modutan azter dezakegu maila sozioekonomikoaren (ISEK indizea erabilita) eta emaitzen arteko lotura:

- Ikasle baten egoera sozioekonomikoa hobetzen denean ikasle horren emaitzak zenbat hobetzen diren begiraturuz –**errendimenduari dagokion puntuazioaren igoera ISEK puntuarekiko**¹–; hau da, erlazioaren eragina aztertuz.
- Errendimenduaren igoera horiek ikaslearen familia-baliabideekin lotuta egoteaz gain ikaslearen beste ezaugarri batzuekin ere lotuta egon daitezkeenez (aldagaiak), aztertuko dugu ea ikasleen arteko errendimendu-aldeen zer zati azaltzen duen maila sozioekonomikoak –**aldakuntzaren ehunekoa, ISEK bidez azaldua**²–.

2015etik okerrera egin duen arren, Euskadin familiaren maila sozioekonomikoak eta kulturalak Matematika arloko errendimenduan duen eragina bat dator estatuko batezbestekoarekin, eta OCDEko batezbestekoaren azpitik dago.

Bai Euskadi eta bai Espainia OCDEren batezbestekoaren azpitik daude matematikako aldakuntzan ISEK puntuarekiko. 2015. urtetik okerrera gehien egin duen autonomia-erkidegoen artean dago Euskadi, baina estatuko batezbestekoaren barnean txertatzen da oraindik. Gaztela-Mantxa, Valentziako Erkidegoa eta Balearrak dira


¹ Erregresio-koefiziente, erregresio edo malda ere esaten zaio. Ikusi eranskin metodologikoa.

² Determinazio-koefiziente (R^2) edo azaldutako bariantza ere esaten zaio. Ikusi eranskin metodologikoa.


autonomia-erkidego ekitatiboenak, eta atzeko postuetan daude, berriz, Asturias, Madril eta Murtzia; azken horietan, maila sozioekonomikoak pisu handiagoa du.

EKITATE GUTXIAGO


Matematikako puntuazioaren igoera ISEK puntuarekiko




Matematikako puntuazioaren igoera ISEK puntuarekiko



Matematikako aldakuntza, ISEK bidez azaldua



Matematikako aldakuntza, ISEK bidez azaldua




Maila sozioekonomikoak azaldutako ikasleen arteko aldakuntza-ehunekoa aztertzen badugu, Euskadikoa (% 14) Espainiako (% 15) eta OCDEko (% 16) batezbestekoa baino ekitatiboagoa da. Adierazle horrek okerrera egin du baita ere 2015etik. Gaztela-Mantxa, Valentziako Erkidegoa eta Galizia dira autonomia-erkidego ekitatiboak, eta Asturias, Madril eta Murtzia daude azken postuetan.

Euskadin, hemengoen eta etorkinen arteko aldea Matematika arloan estatuko altuena da, bikoitza baita, eta OCDEko hirugarrena.


Gizarte-desoreka eragin dezakeen beste faktoreetako bat jatorriz etorkina izateari dagokiona da. Hori aztertzeke, etorkinen eta bertakoen artean Matematika arloan dauden aldeak aztertuko ditugu, maila sozioekonomikoaren eragina kenduta. Arrakala hori areagotu egin da Euskadin 2015etik, 53 puntura iritsi arte; estatuko batezbestekoaren (21,5 puntu) bikoitza da hori, eta OCDEko hirugarren altuena. Ondoren, Errioxa eta Galizia daude. Alde txikienak Andaluzian, Katalunian eta Balearretan gertatzen dira.

EKITATE GUTXIAGO

Matematikako puntuazioaren aldea jatorri nazionalaren arabera, ISEK kenduta



Matematikako puntuazioaren aldea jatorri nazionalaren arabera, ISEK kenduta




Matematika arloko genero-arrakalak Euskadin hobera egiten du, eta alderantzikatu egin da: neskek mutilek baino emaitza hobekak dituzte.


Generoa da desorekarekin lotuta aztertzen ari garen hirugarren faktorea. Matematika arloan, 2012. urteaz geroztik, hobera egin du errendimenduari dagokion arrakalak nesken eta mutilen artean Euskadin, eta alderantzikatu egin da: neskek mutilek baino 3 puntu gehiago dituzte, Europako Iparraldeko herrialdeen pare. Errioxak, Kantabriak eta Balearrek dute arrakala handiena, eta handitzen jarraitzen du; Euskadi, Galizia eta Katalunia dira arlo honetan ekitatiboenak.

EKITATE GUTXIAGO

Matematikako aldeak generoaren arabera (mutilak - neskak)




Matematikako aldeak generoaren arabera (mutilak - neskak)



EKITATEA IKASTURTEA ERREPIKATZEKO ORDUAN

Errepikatzea neurri bereziki ez-eraginkorra da, baina oso finkatuta dago Espainiako hezkuntza-sisteman, sistema hori gehien erabiltzen duen bigarren herrialdea baita (ikasleen % 29k errepikatu du 15 urterekin). Taldeka duen eragina aztertzen badugu, ekitatiboa ez dela ikusten dugu, gainera. Errepikatzailen arteko ekitatea aztertzeko, errendimendu berdinean oinarrituta, haur batzuek eta besteek errepikatzeko duten probabilitatearen proportzioa kalkulatu dugu **—odds ratioa—**.




Errepikatzea oso bidegabea da sozialki. Errendimendu berdina izanik, Euskadin eta Espainian haur txiroenek 4 aldiz probabilitate handiagoa dute ikasturtea errepikatzeko baliabide gehiago dituztenek baino.


Errendimendu berdina izanik, bai Euskadin eta bai Espainian, maila sozioekonomiko txikieneko haurren % 25ek 4 aldiz probabilitate handiagoa dute ikasturtea errepikatzeko baliabide gehieneko ikasleen % 25ek baino. Estatuko datuarekin alderatuta, Euskadin okerrera egin du datu honek 2015etik, eta OCDEko bigarren okerrera da. Asturias, Aragoi eta Valentziako Erkidegoa dira arlo honetan ekitate-eza handiena duten autonomia-erkidegoak (6 aldiz handiagoa); beste muturrean, berriz, Kanariak, Andaluzia eta Gaztela eta Leon daude.

EKITATE GUTXIAGO

Errepikatzaileen odds ratioa ISEKekiko (Q1-Q4), konpetentzia matematiko eta zientifiko beretan



Errepikatzaileen odds ratioa ISEKekiko (Q1-Q4), konpetentzia matematiko eta zientifiko beretan




Euskadin, jatorri etorkineko ikasleek hemengoek baino probabilitate handiagoa dute errepikatze (1,6 aldiz handiagoa), maila sozioekonomikoa kontrolatu ondoren; OCDEko batezbestekoaren barnean dago.


Haur etorkinek pobreak direlako errepikatzen dute gehiago, ez etorkinak direlako. Euskadin, ikasle etorkinek errepikatze duten probabilitatea maila sozioekonomikoa kontuan hartuta kontrolatzean, 2,2tik 1,6ra igarotzen da hemengo ikasleen probabilitatea. OCDEren batezbestekoaren barnean kokatzen da hori, eta estatukoaren gainetik, arinki bada ere. Nafarroa, Galizia eta Valentziako Erkidegoa dira arrakala handiena dutenak; ekitatiboagoak dira, berriz, Extremadura, Kantabria eta Madril.

EKITATE GUTXIAGO

Errepikatzailen odds ratioa jatorri nazionalaren arabera (ISEK bidez kontrolatuta), konpetentzia matematiko eta zientifiko beretan



Errepikatzailen odds ratioa jatorri nazionalaren arabera (ISEK bidez kontrolatuta), konpetentzia matematiko eta zientifiko beretan




Mutilek neskek baino bi aldiz aukera gehiago dute errepikatzeko Euskadin, OCDEko batezbestekoaren gainetik.


Espanian, 15 urteko mutilek Euskadiko neskek baino 2,4 aukera gehiago dituzte errepikatzeko. 2015. urtetik berdin jarraitzen du horrek. Kanariak, Balearrak eta Katalunia dira arrakala handiena dutenak arlo honetan (3 aldiz aukera gehiago); beste muturrean, Nafarroa, Andaluzia eta Asturias ekitatiboagoak dira.

EKITATE GUTXIAGO

Errepikatzailen odds ratioa generoaren arabera (mutilak - neskak),
konpetentzia matematiko eta zientifiko beretan



Errepikatzailen odds ratioa generoaren arabera (mutilak - neskak),
konpetentzia matematiko eta zientifiko beretan




ESKOLA-SEGREGAZIOA

Eskola-segregazioa ikasleak beren ezaugarri pertsonal edo sozialen arabera (estatus sozioekonomikoa, jatorria, desgaitasuna...) ikastetxe batzuetan edo besteetan banatzea da; hau da, ezaugarri bertsuak dituzten ikasleek ikastetxe beretara zer neurritan jotzen duten hartzen du kontuan arlo horrek. Gorard indizea erabilia (eskolen arteko banaketa zenbateraino den homogenea neurtzen du), PISA txostenak aukera ematen digu **sozioekonomikoki egoera ahulenean dauden ikasleak (ISEKen barnean % 25 baxuenean daudenak)** eta **jatorriz etorkinak direnak** nola bereizten diren aztertzeko.


Egoera ahulenean dauden ikasleen kontzentrazioak gorantz jarraitu du Euskadin 2012tik, eta OCDEko batezbestekoaren gainetik kokatu da, nahiz eta behera egin duen estatuan batez beste. Segregazio sozioekonomiko handieneko autonomia-erkidegoen artean bigarrena da Euskadi.

Estatuan eta Katalunian ez bezala, sozioekonomikoki egoera ahulenean dauden ikasleen eskola-segregazioak gorantz jarraitu du Euskadin 2012tik, Madrilen gertatutakoaren ildo beretik. Andaluziarekin batera, segregazio handienetakoa duten autonomia-erkidegoetako bat da; gutxienekoak, aldiz, Errioxa, Kantabria eta Kanariak dira.

EKITATE GUTXIAGO



Gizarte-segregazioaren indizea (Gorard Q1)




Euskadiko ikasle etorkinen eskola-segregazioa estatuko altuena da, nahiz eta OCDEko batezbestekoaren parean dagoen.


Euskadin, jatorriz etorkinak diren ikasleen eskola-segregazioa altua da, estatuko altuena, nahiz eta murriztu egin den 2012tik. Eskola jakin batzuetan ikasle etorkinak gehien pilatuta dituzten beste autonomia-erkidegoak Andaluzia eta Extremadura dira, eta gutxienekoak, berriz, Balearrak, Murtzia eta Nafarroa dira.

EKITATE GUTXIAGO

Segregazioa jatorri nazionalaren arabera (Gorard indizea, etorkinak)



Segregazioa jatorri nazionalaren arabera (Gorard indizea, etorkinak)



ZER PROPOSATZEN DU SAVE THE CHILDRENEK EUSKADIN HEZKUNTZA-EKITATEA HOBETZEKO?

- Etorkizunean Euskadik onartuko duen Hezkuntza Legean **arrazoi sozioekonomikoek eragindako eskola-segregazioari** aurre egiteko neurriak hartzea, egoera ahulenean dauden ikasleen kontzentrazio maila murrizteko, hala nola plazak erreserbatzea, ikastetxe bakoitzeko gutxieneko eta gehieneko ehunekoak zehaztea, matrikulazio zentralizaturako bulegoak, eta eskolatze-puntu ekitatiboak.
- Itunpeko eskoletan, **kuoten kobrantzari** aurre egitea, eta aski izango den finantzaketa modu bat ziurtatzea.
- Ikastetxeei zuzendutako **aparteko baliabideen** hornidurarako programak berrikustea, zabaltzea edo berriro planteatzea.
- **0-3 adin-tartean, kalitatezko haur-hezkuntza** haur guztien eskura jartzea, batez ere maila sozioekonomiko baxuko harren eta jatorriz etorkinak direnen esku, etorkizuneko Euskadiko Hezkuntza Legean plaza bat eskuragarri izateko eskubide unibertsala aitortuz



Argazkia: Alba Lajarin

1. ERANSKINA. METODOLOGIA

Ondoren, OCDEren PISA datuetan oinarrituta eraikitako adierazleen kalkulurako erabili diren prozedurak zehaztu dira, proiektu honen zati direnez:

1. Kalkulu guztietarako, ikasleen amaierako pisuak erabili dira.
2. Estrategia orokor gisa, irakurketari dagokion aldagaia erabili ordez matematikakoa hartu da, Espainiaren kasuan 2018ko PISAko emaitzak argitaratu ez direnez.
3. ISEK indizea erabili da, urteko estatus sozial, ekonomiko eta kulturalari dagokiona.
4. Espainiatik kanpo jaiotako biztanleria eta bi gurasoak Espainiatik kanpo jaiotakoak dituen biztanleria jatorriz etorkina dela jo da, hau da: lehen eta bigarren belaunaldiko etorkinak.
5. Errendimenduaren ataleko ekitate-ereduetarako, determinazio-koefizientea (R^2) eta erregresio-parametroa (gradiente) kalkulatu dira matematikako emaitzen erregresio linealean, ikaslearen ISEKekiko, ikasleen amaierako pisuaren bidez doituta.
6. Segregazioari dagokionez, Gorard indizea kalkulatzeko (talde minoritariotzat ISEKeko P25etik beherako kuartila hartuta, edo jatorriz etorkinak diren ikasleak), honako prozedura honi jarraitu zaio:
 - a. Ezaugarrietan behatutako balioak (ISEK, jatorria) ez dituzten behaketak kentzea.
 - b. Aurreko azpilagin horretatik abiatuta (a), ikastetxe bakoitzeko behaketan kopuru osoa kalkulatu da.
 - c. **ISEKerako:** aurreko azpilaginetik abiatuta (a), hezkuntza-sistema bakoitzerako (herrialdekoa edo autonomia-erkidegokoa barne hartuta) ikasle bakoitza biltzen duen ISEKeko kuartila kalkulatu da, hezkuntza-sistema horretan ikasle bakoitzak duen azken pisua hartuta kontuan. Hortik abiatuta, talde minoritarioko ikasleen kopurua kalkulatu da (ISEKen barnan P25) ikastetxe bakoitzeko.
 - d. **Jatorrirako:** aurreko azpilagin horretatik (a), talde minoritarioko ikasleen kopurua kalkulatu da ikastetxeko (1. belaunaldiko etorkinak + 2. belaunaldiko etorkinak).
7. Odds ratioaren kalkulurako (edo probabilitate-arrazaioa), OCDEk planteatutako metodologiari jarraitu zaio (1.6.15 irudia, 2015eko PISA txosteneko I. liburukia; OCDE, 2016); baina matematika eta zientziak hartu dira kontrol-aldagai gisa. Eredu logistiko bat egin da, kasu bakoitzean hauek hartuta: (i) ISEKeko kuartil altua eta baxua; (ii) hemengo ikasleak edo jatorriz etorkinak direnak; (iii) gizonezkoak edo emakumezkoak hezkuntza-sistema bakoitzeko; eta Odds ratioen emaitzak hezkuntza-sistema bakoitzeko edo autonomia-erkidego bakoitzeko aurkeztu dira. Hortaz, emaitzak aldatu egin dira OCDEren bertsioarekiko (2016).

Erreferentziak

OECD (2016), PISA 2015 Results (Volume I): Excellence and Equity in Education, PISA, OECD Publishing, Paris, <https://doi.org/10.1787/9789264266490-en>.

